



## Eneko Olasagasti

◆ ZINEMAGILEA

# Zer moduz?

GAUR EGUN edonork pasa deza-keen unerik txarrenetako bat, nik bai behintzat, kaletik joan eta aspaldiko laguna topatzean betiko galdera entzutea da: “Zer moduz?”. Bi segundo dirau isiluneak. Une horretan egia esatea pentsatzetik betiko erantzuna ematera pasatzen zara: “Ondo...”, “...esan beharko” gehitzea bi aldiz pentsatzen duzu. Baina egun esaerak bere esanahi gordinena hartu badu ere, esan egiten duzu. Eta segidan zisko eginda uzten zaituena botatzen dizu: “Ya, eta gainera zuenean okerrago, ez?”. “Ez dakit okerrago, baina bai, oso gaizki”. Eta oraingoan ez zara saiatu zure ahotsak hartu duen tonu etsitua disimulatzen. Beste garai batean arloaren analisisa egitetik ETBk beharko lukeenaz azalpenak ematera pasatuko nintzen. Gaur egun ezin dut. Egoera pertsonala gailentzen da.

Eta orduan gogoratzen naiz kanpora alde egin behar izan duten lagunekin. Eta une batean kontatzekotan nago, bat etxea atzean utzita Espainiako beste mutur batean dagoen hiri batera joan dela bizitza berriz hastera. Berrogeita hamar urteren bueltan, berriz edo... Eta laster beste batek gauza bera egingo duela burura datorkidanean berak zera bota dit: “Atzo Mikel ikusi nuen eta curriculuma Miamiako gaztelarazko telebista kate batera bidali du, han bere lagun baten lagun batek lan egiten omen du. E-maila eman zioten, bidali eta erantzun egin omen diote. Klaro, berak ez dauka unerik zuek bezala”. Hor buruarekin baiezkoa egitea besterik ez zaizu

geratzen. Eta orduan esku artean dituzun egitasmoak aipatzen dituzu, ilusio izpiz moztrotuta, baina azkar bukatzen duzu.

Gogoan dut, orain dela bi urte edo, orri hauetan argitaratutako horrelako beste artikulu batean, gauzak aldatu ezean zenbat gorpu geratuko zirela bide-ertzean idatzi nuela. Irudi edo metafora bat izan nahi zuen

*Orduan gogoratzen naiz kanpora alde egin behar izan duten lagunekin. Eta une batean kontatzekotan nago batek etxea atzean utzita Espainiako beste mutur batean dagoen hiri batera joan dela bizitza berriz hastera*

hark. Ez dut oso garbi nire burua horien artean ikusten nuen ala ez. Baina gaur beste irudi bat datorkit. Kalejirarena. Batzuetan mantso, arin-arin bestetan. Eta zer zaila den azkena izatea kalejiran. Zeren aurrekoa mantso badoa ere nahiko da bira bortitz pare bat egitea azkena airean bidaltzeko. Eta hortxe nabil. Askatzen naizenean korrika joaten naiz askatu nauen eskua berriz heltzera. Berbena laster bukatzea besterik ez dut espero. Kalejira azkena izaten da gainera, ezta? ■



## BERTSO BERRIAK

Maddi Gallastegi  
Osa



**Doinua:** Arratsalde on ta aupa zuek.

## Zumaiatik Zero Zabor

“Nik erabakiko dut zer-nora bota, ta zein den ordena”, “zaborra nik sortzen dudan arren, hau ezta nire problema!”, “Erosoa bada bost axola nola biltzen duten dena”, jendartea da zabortege bat gainezka egin duena, zein da bidea, sistema? Zaborrik onena izan dadin inoiz sortuko ez dena!

Kontsumo eredu basati bat eskuinaren eskuetan, interes, negozioak nonahi, kontzientziak errautsetan, ez dugu nahi soilik birziklatu zaborra bere horretan, jar dezagun eredu oso bat zintzilikarioetan, ez gaitezen egon bertan, iraganetik jaso hustuz, geroarekin zorretan.

Egungo Hernani ezin zuen irudikatu Txirritak: asteartetan organikoa, asteazkenetan brikak, aldaketek beldurtzen gaituzte nahiz izan moderno, *chic*-ak, har dezagun arnas, aire garbiz bete ditzagun birrikak, gaur akabo polemikak, emaitza positibo berberak markatzen baditu txipak. ■

